

VIA CATALANA: HERRI OSO BAT MARTXAN JARRI ZUEN GIZA KATEA

Beñat Zaldúa

Katalunia iparraldetik hegoaldera zeharkatu zuen giza katearen funtsa biltzen du «17.14, L' hora del poble» liburuak. Liburuaren egileekin zein giza katea antolatzeko lanetan buru-belarri aritu ziren hainbat kidearekin bildu gara, halako egitasmoen atzean biltzen dena aztertzen saiatzeko.

Ez da zaila izan ANC Biltzar Nazional Katalaneko hiru ahots lortzea erreportaje hau egiteko. «Gure esperientziak zerbaiterako balio badizue, aurrera», esan zuen segituan Joan Serrak, ANCKo komunikazio arduraduna herri mugimenduaren hastape netetik bertatik. Serra bera eta ANCKo komunikazio alorrean bertan lan egiten duen Anna Rosenfeld dira “17.14, L' hora del poble” liburuaren egileak, pasa den irailaren 11n Katalunia iparraldetik hegoaldera lotu zuen katearen nondik norako guztiak azaltzen dituen liburua. Haiekin elkartu gara bizitakoaren laburpen bat egin dezaten, baita Ignasi Termes ANCKo idazkari tza nazionaleko kidearekin ere. Via Catalana deitutako giza kateko protagonistak parte hartu zuten bi milioi lagunak izan arren, horrelako mobilizazioek badituzte izen propioak ere, eta horietako bat izan zen Termes, egun hartan –eta aurreko hilabeteetan– giza kateko ko ordinatzaile nazionala izan baitzen Ferran Civitekin batera.

ANCKo egoitzan dugu hitzordua, Eixampleko etxabe batean kokatutako bi pisuko lokal modernoan. ANCren gorakada etengabearen seinale dudarik gabe, batek gogoratzen baitu duela soilik bi urte elkarrizketak CIE-MEN erakundeak utzitako bulego txiki batean eskaintzen zituztela, garai hartan egoitza propiorik ere ez zuten-eta.

Lehen galdera bakarra izan zitekeen: nola bururatu zitzaizuen 400 kilometroko giza katea osatzea? Historian atzera salto egiten du Serrak lehen erantzuna emateko. «Bide Baltikoa aztertzean, batek baino gehiagok pentsatu zuen hemen Katalunian noizbait horrelako zerbait egin behar genuela», dio, 1989an Estonia, Letonia eta Lituaniako hiriburuak independentzia eske lotu zituen giza kateari erreferentzia eginez. Josep Maria Virgili izan zen horietako bat, Serrak dioenez: ANC jaio zen asanbladan bertan, 2011ko urrian, proposatu zuen giza kate bat independentzia aldarrikatzeko. «Une hartan inork ez zuen aintzat hartu proposamena, nahiko eroa iruditu zitzaion entzun zuen orori», aitortu du orain Serrak.

Baina urte bete bakar batean gauzak asko aldatu ziren Katalunian, Ronsenfeldek gogora ekarri moduan: «2012ko Diadan Katalunian gogoratzen den manifestaldirik handiena antolatu genuen, milioi eta erdi pertsonarekin Bartzelonan; manifestazio perfektua izan zen, gaindiezina». «2013an beste manifestaldi klasiko bat antolatu izan bagenu alderaketak saihestezinak izango lirateke, eta, bi milioi pertsonako mobilizazioa lortuta ere, sentsazioa aurreko urtekoaren parekoa izango zen, eta independentismoaren geldialdiztat har zitekeen», gehitu du Joane.

Hasieratik izan zuten argi, beraz, 2013rako mobilizazio formatua aldatu nahi zutela. Baina zer egin? «Denetarik iritsi zitzaigun, batzuk proposamen ahulak, beste batzuk zinez ezinezkoak. Baina, azkenean, oso antzeko bi proposamen iritsi zitzaizkigun bi toki desberdinetatik: giza katea», azaldu du Serrak. «Orduan hasi ziren nire bizitzako hilabeterik bizienak», hitz egiten du lehen aldiz Termesek.

«Nik eta Ferran Civitek giza kate hori nola egin pentsatu eta posible zen edo ez asmatzeko mandatua jaso genuen; 2013ko martxoaren hasiera zen eta bi aste geroago ANCren urteroko biltzar nazionala geneukan egutegian, hurrengo irailaren 11n zer egin behar genuen iragartzeko data», jarraitu du Termesek. Bi

aste horiek gogora ekarri ditu jarraian: «Autoarekin gora eta behera ez geundenean mapak aztertzen ari ginen. Behin baino gehiagotan erabili nituen mapak maindire gisa lo-kuluxka egiteko!». Bi asteren buruan, bere epaia argia izan zen: «Erronka erraldoia zen, baina, ongi antolatuz gero, iparraldetik hegoaldera zihotan 400 kilometroko giza katea osa zitekeen. Nola? 500 metroko 800 giza kate txiki eginez, hau da, ibilbidea banatu eta modu deszentralizatuan antolatuz».

IDEIATIK PAPERERA: PLANGINTZA

Idea horrekin, eta oraindik duda askorekin, 2013ko martxoan eman zuten ezagutzera hurrengo Diadako ekintza nagusia: Katalunia iparraldetik hegoaldera lotuko zuen 400 kilometroko giza katea, El Pertús herritik Alcanar herrira, baita harago ere, Ipar Katalunian abiatutako giza katea Valentzian hedatzeko asmoa ere baitzuten Herrialde Katalanen batasuna aldarrikatzeko asmoz. Galderak zuzenean etorri zitzaizkigun burura aurkezpen ekitaldian bildutako kazetarioi: zenbat jende behar ko zen? Nola antolatuko zuten? Nola lortuko zuten jendea herririk gabeko kate zatiatar joatea? Nola finantzatuko zuten ekimena?

ANCKo ordezkariak ez zuten inolako erantzunik eman. Aldez aurretik hala

Denetarik adierazpenak bildu ziren Via Catalana izena hartu zuen giza katean. Eskuineko irudian, Kataluniaren independentziaren aldeko afixa.

Jose JORDAN | AFP

